

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

Iragarkia

Bergarako Udalean aurretiazko jakinarazpeneko obretarako udal lizentzia lortzeko prozedura laburtu azkarra arautzen duen ordenantza (obra txikien udal-baimena lortzeko prozedura laburtua eta azkarra arautzen duen ordenantza aldatzen duena) jendaurreko informazio epean jarri ondoren eta inongo alegazio-rik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta gelditu da, jarraian zehazten den testuarekin:

Bergarako udalean aurretiazko jakinarazpeneko obretarako udal lizentzia lortzeko prozedura laburtu azkarra arautzen duen ordenantza.

SARRERA

Udalaren asmoa da Administrazioako prozesuak erraztea, burokraziak kentzea eta izapideak sinplifikatzea, beti ere indarrean dagoen legedia betetzeko bermearekin.

Udalak komenigarritzat jotzen du proiektu tekniko bat aurkeztea eskatzen ez duten garrantzi txikiko obren zati baten eskaera eta izapidetzea arautzea, dagokion udal-lizentzia ahalik eta modu errazenean lortzeko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen –Lurzoruari eta Hiriginzari buruzkoan– 207. artikuluan eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ordenantzan jasotzen dira udal-lizentzia eskatzera derrigortuta dauden obrak.

Gauzak horrela, jarraian zehazten diren artikuluetan jasotzen dira aurretiazko jakinarazpena behar duten obren definizioa eta jarraitu beharreko izapideak.

1. *Definizioa.*

Aurretiazko komunikazioa behar duten obratzat hartuko dira etxebizitzetan egiten diren eta proiektu teknikoa behar ez duten jarraian zehazten diren etxe barruko obra xumeak:

- Sukaldea berriztu.
- Komuna berriztu.
- Zorua aldatu.
- Barruko arotzeria aldatu.
- Kalefakzioa ezarri edo aldatu.
- Argiteriako instalazioa berriztu.

Bestalde, ez dira aurretiazko jakinarazpenaren mende dauden obratzat hartuko proiektu teknikoa behar dutenak, azaroaren 5eko 38/1999 Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta ezta aipatutako proiektu teknikoa behar ez duten arren, artikuluko honetan erlazionatuta ez daudenak (leiho-aldaketak, eraikineko elementu komunetako obrak –fatxadak, teilatua, ataria, eskailera...–, lokal eta pabiloi industrialetan egindako obrak, eta abar).

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Anuncio

Previa información pública de la Ordenanza reguladora del procedimiento abreviado y rápido para la obtención de licencia municipal de las obras sujetas a comunicación previa del Ayuntamiento de Bergara (por el que se modifica la ordenanza reguladora del procedimiento abreviado y rápido para la obtención de la licencia municipal de obras menores) y no habiéndose presentado alegación alguna, se entiende definitivamente aprobada, cuyo texto íntegro se reproduce a continuación:

Ordenanza reguladora del procedimiento abreviado rápido para la obtención de licencia municipal de las obras sujetas a comunicación previa en el Ayuntamiento de Bergara.

INTRODUCCIÓN

Es objetivo de este Ayuntamiento facilitar los procesos administrativos, eliminar burocracia y simplificar las tramitaciones, garantizando no obstante el cumplimiento de la legislación vigente.

El Ayuntamiento considera conveniente regular la solicitud y tramitación de una parte de las obras de menor entidad, que no requieran la presentación de un proyecto técnico, al objeto de obtener la correspondiente licencia municipal del modo más sencillo posible.

Las obras que requieren licencia municipal se encuentran recogidas en el artículo 207 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, así como en la Ordenanza del Plan General de Ordenación Urbana del municipio.

Así las cosas, en los artículos siguientes se establecen la definición y trámites a seguir en relación con las obras sujetas a comunicación previa.

1. *Definición.*

Se denominarán obras sujetas a comunicación previa las obras simples, de interior, que se señalan a continuación, siempre que no precisen de proyecto técnico y se ejecuten en viviendas:

- Renovación de cocina.
- Renovación de baño.
- Cambio de suelo.
- Cambio de carpintería interior.
- Instalación o cambio de calefacción.
- Renovación de instalación de iluminación.

Por otro lado, no se considerarán obras sujetas a comunicación previa aquellas que requieran de proyecto técnico, de acuerdo a lo que determina el artículo 2 de la Ley de Ordenación de la Edificación 38/1999, de 5 de noviembre; así como aquellas que no requiriendo del expresado proyecto técnico, no estén relacionadas en este artículo (cambios de ventanas, obras en elementos comunes del edificio –fachadas, tejado, portal, escalera...–, obras ejecutadas en locales y pabellones industriales, etc).

2. *Izapidea.*

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orria bete behar du eta Udaleko Erregistro Orokorrean (edo gaitutako baliabideen bidez: telematikoa, posta...) aurkeztu behar du eskaera, gremio guztien aurrekontuekin batera. Ondoren, Udaleko Kontuhartzailetzan ordaindu behar du Ordenantzaren arabera dagozkion tasa eta zerga, eskaera formalki egiten duenetik kontatzen hasita gehienez 10 eguneko epean.

Obra baimena emanda duela ulertuko da eskaera-orrian zehazten diren baldintzekin, eskatzaileak Udaleko tasa eta zerga ordaindu eta, gehienez ere bost laneguneko epean Udalak kontraktorik adierazten ez badu.

Baina udal-tasa eta -zerga ordainduko ez baditu, bere eskaera artxibatu egingo da, atzera egin duela ulertuta.

3. *Eskaera-orria.*

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orria aurkeztu behar du aurretiazko komunikazioa behar duen obra egiteko baimen-eskaera.

Eskatzaileak eskaera-orria zehaztutako datu guztiak azaldu behar ditu bere eskaeran.

4. *Beste xedapen batzuk.*

a. Udaleko teknikariek sarrera librea izango dute obretara, hauek egiten ari diren bitartean.

b. Lizentzia hau eskatu eta lortuta ere, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren bestelako baimenak ere eskuratu behar dira.

c. Alkateak ahalmena izango du ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzerakoan behar beste agindu edo jarraibide emateko.

5. *Xedapen indargabetzailea.*

Ordenantza honen onarpenarekin indargabetuta gelditzen da «Bergarako Udalean obra txikien udal-baimena lortzeko prozedura laburtua eta azkarra arautzen duen Ordenantza». Indargabetutako ordenantza hori Udaltzaren Osoko Bilkuran onartu zen 2014ko azaroaren 24an eta horren behin betiko onarpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 28an.

Bergara, 2021eko urtarrilaren 7a.—Gorka Artola Alberdi, alkatea. (60)

2. *Trámite.*

La persona o entidad solicitante, tras cumplimentar el impreso elaborado al efecto, deberá presentar dicha solicitud en el Registro Municipal de Entrada (o por los medios habilitados –telemático, Correos, etc.–), junto con los presupuestos de todos los gremios. A continuación, en un plazo máximo de 10 días a partir de la presentación formal de la solicitud, deberá abonar en el Departamento Municipal de Intervención la tasa e impuesto correspondientes.

Se entenderá que la licencia de obra habrá sido concedida, siempre bajo las condiciones establecidas en el impreso de solicitud, una vez transcurrido un plazo máximo de cinco días hábiles a partir del abono de la tasa e impuesto municipales por la persona física o jurídica solicitante, y siempre que el Ayuntamiento no haya manifestado postura en contrario.

Ahora bien, en caso de no haber abonado la tasa e impuestos municipales, se procederá al archivo de la solicitud, entendiéndose que se ha desistido de la misma.

3. *Impreso de solicitud.*

La persona o entidad solicitante deberá presentar la solicitud de licencia de obra sujeta a comunicación previa en el impreso elaborado al efecto por el Ayuntamiento.

Para cursar la solicitud, la persona o entidad solicitante deberá facilitar todos los datos establecidos en el impreso.

4. *Otras disposiciones.*

a. Durante el transcurso de las obras, el personal técnico municipal tendrá libre acceso a las mismas.

b. La solicitud y obtención de esta licencia se entenderá sin perjuicio del resto de autorizaciones preceptivas que deban recabarse conforme a la legislación vigente.

c. La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten precisas para la adecuada interpretación y aplicación de la presente ordenanza.

5. *Disposición derogatoria.*

La aprobación de la presente Ordenanza deroga la «Ordenanza reguladora del procedimiento abreviado rápido para la obtención de la licencia municipal de obras menores en el Ayuntamiento de Bergara», aprobada en sesión plenaria de 24 de noviembre de 2014 y publicada su aprobación definitiva en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 28 de enero de 2015.

Bergara, a 7 de enero de 2021.—El alcalde, Gorka Artola Alberdi. (60)